



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

V. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2023ko maiatzaren 17, 18 eta 19a
Donostia, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 3.0

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

Gipuzkoa erdialdeko testu
zaharrak erkatzen

Olatz Leturiaga Angoitia

37-34 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.v.01.03>

ANTOLATZAILEA:




BABESLEAK:



LAGUNTZAILEAK:

erriari ta zabal zazu



Gipuzkoa erdialdeko testu zaharrak erkatzen

Olatz Leturiaga Angoitia

UPV/EHU

olatz.leturiaga@ehu.eus

Laburpena

Artikulu honetan Gipuzkoa erdialdeko testu zahar dialektal batzuk erkatu ditut, zer hizkuntza-ezaugarritan bat datozen eta zertan ezberdintzen diren ezagutzeko. Saio honen helburuak honako hauek dira: Gipuzkoako Urola, Goierri, Tolosaldea eta Beterri eskualdeetan iraganean egon diren hizkuntza-ezaugarrien sailak bereiztea; horietako bakoitza zein berrikuntzak definitzen duen zehaztea; eta berrikuntzok iker-eremuaren barrenean noraino hedatu/mugatu diren jakitea. Lau sail bereizi ditut behin-behinean. Zenbait zalantza eta zailtasun ere adierazi ditut, testu zaharrak erabiltzerakoan sortu ohi direnak.

Hitz gakoak: dialektologia historikoa; Gipuzkoa erdialdea; testuak; berrikuntza.

Abstract

In this paper I compare some old dialectal texts from central Gipuzkoa, in order to find out in which linguistic properties they coincide and in which they differ. These are the goals of the paper: to distinguish the linguistic areas that have existed in the Urola, Goierri, Tolosaldea and Beterri regions of Gipuzkoa; to determine which innovations define each linguistic area; and to know where those innovations have expanded/limited within the geographical area under research. Provisionally, four linguistic areas have been recognized. Also, I indicate some doubts and difficulties, which often arise when working with old texts.

Keywords: historical dialectology; central Gipuzkoa; texts; innovation.

1. Sarrera eta motibazioa

Gaur egun ezagutzen ditugun euskalkiak ez dira betidanikoak. Egoera linguistiko bateratuago batetik datozela uste zuen Koldo Mitxelena hizkuntzalariak (1981), eta, denbora pasatu ahala, hizkuntza bateratuago hori zatituz joan dela, gaur egun ditugun dialektoetara iristeraino.¹ Ikuspegi horri jarraitu diote euskal dialektologialari eta diakronista nagusi gehienek, eta azken urteotan, bereziki, ugaritu egin dira euskalkien historian eta garapenean sakontzea helburu duten ikerketak. Dialektalki ezberdinago diren mendebaleko eta ekialdeko muturrak izan dira ikergai, batik bat. Aitzitik, Euskal Herriko erdialdeko hizkerak, eta, zehatzago esateko, Gipuzkoa erdialdeko hizkerak aztertu dituen lan historiko-dialektologikorik ez da egin oraindik.

Beste herrialde batzuetako dialektologia-lanen ildo beretik, euskal dialektologiako zenbait lanetan ere aldarrikatu da, hizkerak aztertzerakoan, alderdi bat baino gehiago hartu behar direla kontuan, ez alderdi geografikoa bakarrik (*zer*, *non*). Argi laburbiltzen du Zuloagak (2022: 8) jakintza-arlo honetako lanek zer bilatu behar luketen:

Dialektologiaren ikerlanetan, beraz, *zer* & *non* binomioa osatu egin behar da: interpretazio geolinguistikoan sartu eta *nondik* & *norantz* galderak gehitu behar dira; ikuspuntu kronologikotik baitezpadakoa da *zer* & *noiz* & *noiztik* & *noiz arte* galdetzea, eta ikuspuntu soziolinguistikotik *nork* & *nori* & *zer* & *nola* esan dion ikertu behar da. Horiei guztiei *zergatik* gehitu behar zaie azalpen osoagoa lortzeko [...]. Geografiaren, kronologiaren eta hiztunen/idazleen jokamoldeen azterketa uztartzen dituen dialektologiak errealitate linguistikoaren ikuspegi osoagoa erdiesten du.

“Ikuspegi osoago” horretatik Gipuzkoa erdialdeko euskarari buruz ikertu den gutxia, beste hizkera batzuk aztertzerakoan ikertu da, zeharka. Horregatik, beharrezkoa da eremu honetako euskara berariaz jorratzea, aipatutako alderdi horiek guztiak aintzat hartuta. Horixe da nire tesiaren helburu orokorra: Gipuzkoako Urola, Goierri, Tolosaldea eta Beterri eskualdeek osatzen duten *Gipuzkoa erdialdea* ikuspegi historiko-linguistikotik aztertzea: *zer*, *nondik*, *nora* eta (ahal den neurrian) *noiz* iritsi den jakitea; izan ere, Euskal Herriko erdialdean egon diren hizkuntza-dinamikak eta -loturak argitzen lagun dezake, eta hala, euskararen eta euskal dialektoen historia argitzen. Horretarako, ondo ezagutu behar dira bertako nahiz ondoko

¹ *Éuskaro* deitu zion antzinako egoera bateratuago horri (Mitxelena, 1981: 307); orain, *Euskara Batu Zaharra* (EBZ) esaten diogu.

eskualdeetako idazki zaharrak, iraganeko hizkuntza-egoeraren berri izan nahi dugunean, horiek izan ohi direlako lanerako iturri (Schneider, 2013: 57): poemak eta bertsoak, kantuak, gutunak, udal-aginduak, apaizek idatzitako kristau-dotrina zaharrak, etab. Lan-ildo horri jarraituko zaio saio honetan ere.

2. Ikerketaren helburuak

Ikerketa txiki asko egin behar dira eremu edo eskualde jakin bateko iraganeko hizkuntza-dinamikak ezagutzeko: hizkera hori(ek) definitzen d(it)u(z)ten ezaugarrien sorrera eta ibilbidea ikertu behar da; horretarako, tasun esanguratsu horiek leku nahiz garai bakoitzean duten agerpenari erreparatu behar zaio testuz testu, eta bertako datuak ondoko eskualdeetakoekin alderatu. Haatik, lagungarri da nolabaiteko ikuspegi orokor bat izatea ere. Hori da, hain zuzen, lan honen xedea: testu zaharretan oinarrituta, Gipuzkoa erdialdeko iraganeko euskara definitzen duten *hizkuntza-ezaugarrien sailak*² bereiztea, eta horiek osatzen dituzten tasunak (berrikuntzak) zehazten hastea. Honako galdera hauek izan ditut abiapuntu:

- Zer ezaugarri partekatzen dituzte Gipuzkoa erdialdeko eskualdeek ondoko lurraldeekin, eta, horien geografia-hedaduraren arabera, zer hizkuntza-ezaugarri sail bereiz daitezke? Nora hedatzen/mugatzen da horietako bakoitza aztergai den alderdian?
- Iker-eremuaren barrena begira, *Gipuzkoa erdialdea* dei diezaiokegun eremu linguistiko bat ere badago? Zer ezaugarri batzen (eta ondoko eskualdeetatik bereizten) du eremu hau?

Ikergai diren eskualdeetan izandako lotura historiko-linguistikoaren erakusgarri lirateke sailok, eta etorkizunean har ditzakedan bidezidorrak bilatzen lagun diezadakete. Lan honen mugak tarteko, beste baterako utziko dut ezaugarri bakoitzaz orain arte dakiguna xehetasunez biltzeko —eta gehiago ikertzeko— zeregina, eta ikuspegi orokorra baizik ez dut eskainiko. Bestalde, lanerako idazki zaharrez baliatzean, hainbat galdera, zalantza eta zailtasun sortzen dira; adibide batzuk emango ditut, jardungaiak dituen mugez eta aukerez hausnartzen laguntzen baitute.

3. Ikerketaren muina

3.1 Corpora

Gipuzkoa erdialdeko eskualde bakoitzetik (Urola-Goierri-Tolosaldea-Beterri) testu batzuk hautatu ditut lehen ondorio batzuk ateratzeko. Idazkietako datuak, ordea, ezin dira nolahi interpretatu, eta gogoan izan behar dira —jakin ahal diren neurrian, behintzat—, bai egileari buruzko datuak (Nevalainen, 2018: 6), baita testu-genero eta komunikazio-ekintza bakoitzaren ezaugarriak ere (Schneider, 2013: 60-61; Werner, 2021: 549). Hori horrela izanik, saio hau egiteko erabili dudana corpusaren oinarritzko datu batzuk dakartzat 1. taulan.

1. taula. Saio honetako corpusaren ezaugarriak, Camino (2016: 93)-ko taulan oinarrituta.

Testua, erreferentzia eta erabilitako laburdura	Testuaren egilea	Nongo hizkera	Fidagarritasun dialektala
Urola			
Azkoitiko 1614ko <i>Sumario brevia</i> (Urkizu, 2009): SumBrev	Ezezaguna	Azkoitikoa	Bai, herri-hizkera du
Errezilgo 1622ko gutunak (Sarasola, 1983): ErrezilGut	M. Arzallus, Azpeitiko abadesa errezildarra	Azpeitia edo Errezil ingurukoa	Bai, herri-hizkera du
Azpeitiko altzagatar familiaren 1740 inguruko gutunak (Madariaga et al., 2009): AzpGut	Maria Josefa Alzaga (1. eta 2. gutunak) eta Ignazio Bertiz (3. gutuna)	Azpeitiko Elosiaga auzokoa (1. eta 2. gutunak); ez dakigu ziur (3. gutuna)	Bai, herri-hizkera du
Goierri			

² Honela deitu diet aztergai den eremua alderdi geografiko jakin batekin lotzen duten ezaugarrien multzoiei.

Otxoa Arinen 1713ko dotrina (mikrofilma): OArin	Jose Otxoa Arin	Ordiziakoa	Bai, baina landu-kutsua du
Zegamako 1741eko dotrina (Ondarra, 1984): ZegDot	Ez dakigu ziur, baina Martin de Urteaga izan daiteke itzultzailea	Zegamakoa izan daiteke	Bai, baina ezaugarri batzuetan zalantza
Tolosaldea			
Elduaingo 1619ko bertso iraingarriak (Bilbao, 2014): EldBerts	Joan Olaondo izan daiteke	Elduain ingurukoa	Bai, herri-hizkera du
Irazustaren 1739ko dotrina (Leturiaga, 2022): Iraz	Juan Irazusta	Alkiza ingurukoa	Bai, baina ezaugarri batzuetan zalantza
Berteri			
Lasarteko 1716ko bertso-sorta (Saturstegi, 1983a): LasBerts	Juan Etxeberria dela uste da	Lasartekoa izan daiteke	Bai, baina ezaugarri batzuetan zalantza
Donostiako maitaleen 1761eko gutunak (Saturstegi, 1983b): DonostiaGut	Pepe eta Maria Josefa Agirre	Donostiakoak	Bai, herri-hizkera du

Hautatu ditudan baino testu gehiago ezagutzen ditugu, berez. Alde batera utzi ditut, besteak beste, XVIII. mendearen erdialdetik aurrera hedatutako literatur joerekin —*literatur gipuzkerarekin*— bat egiten duten idazki jasoagoak, eta *testu dialektalei* eman diet lehentasuna: hots, “idazlea edo testua bera zehazki nongoa den dakigun heinean, bertako hizkerarekin bat egiten duketen ezaugarriak biltzen ditu[zt]en[ei]” (Ulibarri, 2015: 59-60).³ Herri-hizkera islatzen duten idazkien artean ere, bakoitzari buruz daukagun informazioa ez da berdina: batzuetan horien kokagune zehatza dakigu, egilea nor den (eta nongoa den) badakigulako edo testuan bertan esaten delako; beste batzuetan zailagoa da hori zehaztea, egilea ez dugulako ezagutzen eta hizkuntza-ezaugarrien bidez nongoa izan daitekeen jakitea ere zail delako. Kokagune gutxi gorabehera jakina dutenak erabili ditut saio honetarako, horiek baitira “dialekto jakin batek garai batean zein hizkuntza-ezaugarri baliatzen zuen ezagutzeko hein batean balio digute[nak]” (Camino, 2009: 311).

3.2 Bereizitako hizkuntza-ezaugarrien sailak

Hizkuntza-ezaugarriak zaharrak edo berriak izan daitezke. Atal honetan, berrikuntzei eman diet lehentasuna: horiek dira dialektoaren funtsa, berriztatzearen bidez osatzen baitira dialektoak (Camino, 2009: 388).

1) Lehenengo saila

Aztergai den eremua Euskal Herriko mendebalarekin lotzen dute berrikuntza batzuek: egungo Araban, Bizkaian, Gipuzkoako zati batean eta (batzuk) Nafarroa Garaiko mendebaleko ibar batzuetan ageri dira.⁴ Hedadura geografikoa aintzat hartuta, Araban sortutakoak eta handik zabaldukotakoak dirudite gehienek (Zuazo, 2012; Urgell, 2020; Zuloaga, 2022; Ondartza, 2022), nahiz eta guztien jatorria ez dagoen hain argi. Teorian, zaharrak edo aspaldi gertatutakoak lirarteke, hedadura zabala dutelako. Zehazteko dago berrikuntza hauetako bakoitza Gipuzkoa erdialdean noraino hedatu (izan) den eta nora ez: jarraian aipatuko ditudanak Urolako eta Goierriko testuetan bildu ditut, batik bat, eta badirudi Tolosaldean ere badagoela hauetariko batzuen arrastorik.

- Izenetako $a + a > ea$ disimilazioa: Urolan *kulpea* ‘kulpa’ (SumBrev 15. agindua) eta *doktrinea* ‘dotrina’ (SumBrev 12. agindua); Goierriin *fortalezeta* (gazt. *fortaleza*) ‘indarra’ (OArin 101. or.) eta *napurretea* ‘lapurreta’ (OArin 163. or.), *esperancea* ‘esperantza’ (ZegDot 50r or.) eta

³ Nolanahi ere, literatur hizkuntzaren eragina nabari den testu jasoagoetatik ere atera daitezke datu dialektalak (Ulibarri, 2015: 62).

⁴ Beraz, *Mendebaleko Euskara Zaharra* (MEZ) deitu izan zaion makrodialektoaren bereizgarriak lirarteke (Lakarra, 2011/2014).

aitearen ‘aitaren’ (ZegDot 1r or.), etab. Beraz, Urola eta Goierri eskualdeak hartzen ditu mendebaleko berrikuntza honek. Tolosaldean eta Beterrin, aldiz, ez dago bilakabide hau, ez testu zaharretan ezta gaur egun ere.

- Erdarazko aditzetako *-adu/-idu* partizipioak:⁵ Urolan *konfesadu* ‘konfesatu’ (SumBrev 4. agindua) eta *kumplidu* ‘konplitu’ (SumBrev 6. agindua), *rrecibidu* ‘errezibitu’ (ErrezilGut 33. lerroa); Goierriin *apartadu* ‘apartatu’ (OArin 34. or.) eta *descubridu* ‘deskubritu’ (OArin 136. or.), *salvadu* ‘salbatu’ (ZegDot 30r or.) eta *vencidu* ‘irabazi’ (ZegDot 15r or.), etab. Hortaz, mendebaleko berrikuntza hau ere Urolan eta Goierriin dago; Tolosaldeko eta Beterriko testuetan, berriz, *-atu/-itu* partizipio-markak soilik daude, gaur egun bezala.
- Indikatibotik kanpoko Nor-Nork adizkietako *egin* laguntzailea: Urolan *erakusi egizu* ‘ezazu’ (SumBrev 2. agindua) eta *eskribidu eragin dagizan* ‘ditzan’ (SumBrev 16. agindua); Goierriin *esan eguiztu* ‘itzazu’ (OArin 63. or.) eta *serbitu ceguian* ‘zezan’ (OArin 11. or.); Tolosaldean *jan eguic* ‘ezak’ (EldBerts 2/16. lerroa), etab. Beraz, Urolako eta Goierriko testuetan ez ezik, adibide bat dago Tolosaldeko Elduaingo bertsoetan ere. Aitzitik, Beterrin **ezan* laguntzaile zaharra soilik bildu dut (cf. *zasu*, *desala*, *nesaqueana* DonostiaGut), eta gaur egun ere hori bera erabiltzen dute.

2) Bigarren saila

Sail honek ere mendebalarekin izandako lotura erakusten du, baina aurrekoek baino hedadura geografiko zabalagoa dute beste berrikuntza hauek: egungo Araban, Bizkaian eta Nafarroa Garaiko mendebaleko ibar batzuetan ageri dira, eta, Gipuzkoa erdialdean, hego-mendebaleko Urolan eta Goierriin ez ezik, iparralderagoko Tolosaldean eta Beterrin ere badaude. Pentsa daiteke lehenengo sailean sartu ditudanek ere hauek bezainbateko hedadura izan zezaketela noizbait, eta geroago galdu edo murriztu egin zela (Urgell, 2020; Zuloaga, 2022). Dena dela, frogatzeko dago ezaugarri berri hauek guztiak mendebaletik etorri diren, aurrekoen moduan.

- **edin* laguntzaile adizkietako *-edi-* > *-idi-* asimiliazioa:⁶ Urolan *akorda vidi* ‘bedi’ (SumBrev 20. agindua), *yzan didila* ‘dadila’ (AzpGut 2. gutuna); Goierriin *izan didin* ‘dadin’ (OArin 129. or.), *santifica bidi* (ZegDot 40v or.); Tolosaldean *izan didin* (Iraz 40. or.); Beterrin *manea bidi* (LasBerts 14. bertsoa), etab. Beraz, aztergai den eskualde guztietako testuetan daude adibideak, hau da, Urolan, Goierriin, Tolosaldean nahiz Beterrin.
- Indikatibotik kanpoko Nor-Nori-Nork adizkietako *egin* laguntzailea: Urolan *enkargadu degion* ‘diezaion’ (SumBrev 13. agindua), *escribi deguicudala* ‘diezazudala’ (ErrezilGut 31.-32. lerroak), *enterga eguizcozu* ‘iezazkiozu’ (AzpGut 1. gutuna); Goierriin *esan eguidazu* ‘iezadazu’ (OArin 20. or.), *barca eguizguzu* ‘iezazkiguzu’ (ZegDot 41v or.); Tolosaldean *ez deguigula utci* ‘diezagula’ (Iraz 24. or.), etab. Hortaz, Urolan, Goierriin eta Tolosaldean daude adibideak. Aztertutako testuetan, **ezan* laguntzaile zaharra soilik dago Beterrin (cf. *zarazu* ‘iezadazu’ DonostiaGut), baina, XVIII. mendearen bigarren erditik aurrera, *egin* ere badarabilte idazle batzuek: Larramendik, Kardaberatzek eta (herri-hizkeraren kutsua duen) Etxagaraik, besteak beste.

3) Hirugarren saila

Euskal Herriko erdialdearekin ere lotura ikus daiteke: egungo Nafarroa Garaiko, Lapurdiko eta Gipuzkoako eremu gehieneko testuetan ageri diren berrikuntzak daude. Araba (ekialdean) ere badaude adibide batzuk. Hori horrela izanik, aukera bat da pentsatzea Gipuzkoan sor zitezkeela, eta, ondoren, ezker-eskuin hedatu zirela; zaila da hori ziurtatzea, ordea, Gipuzkoako testu gehiago izan gabe. Bestalde, argitzeko dago ea hirugarren sail honetako berrikuntzak aurretik aipatutakoak baino lehenagokoak edo geroagokoak diren aztergai den eremuan, baita eskualde guztietan oparotasun bera duten ere; banan-banan ikusi beharko da hori.

⁵ Zuloagak dioenez (2022: 170-172), hau ere MEZaren berrikuntza bat da, baina ez dirudi zaharrenetarikoa, ezta Gasteiztik hedatutakoa ere; *-adu* & *-idu* partizipioak gaztelaniatik sartuak diren neurrian, hizkuntza-ukipenaren kontuak aintzat hartu behar lirateke, ohiko difusio-ereduetan pentsatu baino lehen.

⁶ Utergako Joan Beriainek ere baditu halakoak: *ezpadidi* (1626: 153), *eztidila* (1621: 44r), *ezpalidi* (1621: 70v), *apud* Camino (2022: 435. orrialdeko oin-oharra). Beraz, mendebaleko ibarretatik kanpo ere badira agerraldi gutxi batzuk Nafarroa Garaian.

- *Nere, gere* gisako izenordain genitiboak: Urolan *guerequin* ‘gurekin’ (ErrezilGut 2. lerroa), *nere* ‘nire’ (AzpGut 1. gutuna); Goierrin *nere* (OArin 170. or.), *guere* ‘gure’ (ZegDot 4v or.); Tolosaldean *nere* (Iraz 49. or.) eta *gueren* ‘gure’ (Iraz 3. or.); Beterrin *neresatt* ‘niretzat’ (LasBerts 9. bertsoa), *nerequin* ‘nirekin’ (DonostiaGut 2/7. lerroa), etab. Beraz, Gipuzkoa erdialdeko eskualde guztietan bildu ditut halakoak, eta gaur egun ere erabiltzen dira.
- *Neronek/zeronek, neroni/zeroni* ‘neu/zeu’ gisako izenordain indartuak: Goierrin *neuronec* ‘neronek/neuk’ (OArin 170. or.), *cerorren* ‘zerorren/zeure’ (ZegDot 10v or.); Beterrin *neronec* ‘neronek/neuk’ (DonostiaGut 1/5. lerroa), *zeronec* ‘zerorrek/zeuk’ (DonostiaGut 1/6. lerroa) eta *seroni* ‘zerori/zeu’ (DonostiaGut 2/8. lerroa), etab. Hortaz, Goierrin eta, batez ere, Beterrin ageri dira halakoak; Tolosaldeko testuetan ez dut adibiderik bildu, nahiz eta gaur egun erabiltzen diren. Urola gehienez, berriz, *neuk/zeuk, neu/zeu* dira nagusi testu zaharretatik gaur egun arte.
- *Izandu, egondu, bizitu* gisako partizipio analogikoak: Urolan *bidaldu* ‘bidali’ (ErrezilGut 43. lerroa); Goierrin *deseguindu* ‘desegin’ (OArin 23. or.), *izandu* ‘izan’ (ZegDot 11v or.); Tolosaldean *egondu* ‘egon’ (EldBerts 2/11. lerroa), *izandu* (Iraz 18. or.); Beterrin *ysandu* (LasBerts 5. bertsoa), *jaquindu* ‘jakin’ (DonostiaGut 2/27. lerroa), etab. Honenbestez, Gipuzkoa erdialdeko eskualde guztietan bildu ditut adibideak. Gaur egun, Gipuzkoan, ipar-ekialdeko eremuan entzuten dira halakoak gehien bat.

4) Laugarren saila

Gipuzkoa erdialdeak Euskal Herriko mendebalarekin eta erdialdearekin izandako harremana erakusten dute orain arteko sailek. Alabaina, interesgarri da nire iker-eremua Gipuzkoako beste eskualdeetatik zertan ezberdintzen zen ikustea ere, *Gipuzkoa erdialdea* dei diezaiokegun eremu linguistiko bat (ere) badagoen jakiteko. Ildo horretatik, badira Debarroko eta Oiartzualdeko idazkietan ez dauden berrikuntza batzuk. Ez dira berrikuntza eskusiboak, Arabako edo/eta Nafarroa Garaiko testuren batean ere ageri baitira (Reguero, 2019; Ondartza, 2022). Honenbestez, beste lurraldeekin izandako lotura erakuts dezakete hauek ere (Goierrri → Araba; Goierrri/Tolosaldea/Beterrri → Nafarroa Garaia), baina, era berean, Gipuzkoako Debarrotik (iparraldea salbu) eta Oiartzualdetik bereizten dute eta nolabaiteko batasuna ematen diote iker-eremuari. Aztertu beharko da berrikuntzok benetan ez zeuden alboetako Gipuzkoako eskualdeetan edo testu faltagatik den, baita bertako berrikuntza eskusiborik baden ere. Ikertzeko gelditzen da sail hau, beraz.

- *Izan* laguntzaileadun adizkietako *gera, zera* gisakoak: Urolan *zeraden* ‘zaren’ (SumBrev 2. agindua), *çera* ‘zara’ (ErrezilGut 40. lerroa), *zera* (AzpGut 2. gutuna); Goierrin *guerade* ‘gara’ (OArin 64. or.), *guerala* ‘garela’ (ZegDot 38v or.); Tolosaldean *gueraden* ‘garen’ (Iraz 37. or.); Beterrin *serade* ‘zara’ (LasBerts 3. bertsoa), *zerala* ‘zarela’ (DonostiaGut 1/28. lerroa), etab. Beraz, Gipuzkoa erdialdeko eskualde guztietan bildu ditut halakoak; Debarro gehieneko nahiz Oiartzualdeko *zara, gara* gisakoetatik bereizten dira.⁷
- 1. eta 2. pertsonako *edun* laguntzaileadun adizkietan *-e-*: Urolan *det* ‘dut’ (ErrezilGut 33. lerroa), *dedan* ‘dudan’ (AzpGut 2. gutuna); Goierrin *dezu* ‘duzu’ (OArin 13. or.), *degula* ‘dugula’ (ZegDot 13v or.); Tolosaldean *dec* ‘duk’ (EldBerts 2/20. lerroa), *degu* ‘dugu’ (Iraz 44. or.); Beterrin *det* (LasBerts 13. bertsoa), *deran* ‘dudan’ (DonostiaGut 2/33. lerroa), etab. Honenbestez, Gipuzkoa erdialdeko eskualde guztietan ageri dira horrelako adizkiak; Debarroa gehieneko *dot* nahiz Oiartzualdeko *dut* gisakoetatik bereizten dira.⁸
- 3. pertsonako *edun* laguntzaileadun adizkietan *-eu-/eb-*: Urolan *deu* ‘du’ (SumBrev 5. agindua), *çebala* ‘zuela’ (ErrezilGut 34. lerroa), *debanean* ‘duenean’ (AzpGut 2. gutuna); Goierrin *debe* ‘dute’ (OArin 48. or.), *cebean* ‘zuten’ (ZegDot 52v or.); Tolosaldean *ceben* ‘zuten’ (Iraz 54. or.), etab. Berrikuntza da lehenagoko **dadu-* eta (mendebaleko) *dau-* formekin alderatuta (**dadu-* > *dau-* > *deu-*), nahiz eta gerora adizki berriak sortu direnez, gaur egun arkaismotzat

⁷ “Lehen testuetatik [...] agertzen da ezaugarri hau [*zera, gera*]. Horregatik dira aipatzekoak Sasiola debarraren *gara, garan* eta Debako lauukoetako *bagara, zarala* adizkiak, batetik, eta Isasti lezoarraren *garaden, bestetik*” (Aritzimuño, 2020: 61). Gaur egun, *ga(ra)/ge(r)a* eta *za(ra)/ze(r)a* adizkien arteko lehia dago Donostiatik ekialdera (Camino, 2000: 73), baina, testu zaharretako datuak aintzat hartuta, baliteke *-e-*dun aldaerak geroago hedatuak izatea eremu horretan.

⁸ Gaur egun, *det/dut* adizkien arteko lehia dago Donostiatik ekialdera (Camino, 2000: 74); kasu honetan ere, geroago hedatuak izan daitezke *det* gisakoak.

joko genukeen. Urolan eta Goierrin daude, batik bat, halako adizkiak. Irazusta alkizarrak *du(an)/zuan* (berriagoak) ditu nagusiki, baina *-eu-* duten adibide batzuk ere baditu; beraz, badirudi Tolosaldean ere noizbait erabili zirela, nahiz eta gerora galdu (Camino, 2019: §4.9.4).⁹ Debarro gehieneko *dau* eta Oiartzualdeko *du* formatik ezberdintzen dira.

3.3 Zailtasunak eta galderak

Eskema argigarri bat eskaintzen saiatu banaiz ere, ez da erraza testu zaharretatik ondorio garbiak ateratzea. Sortzen diren galdera eta zailtasunetako batzuk adieraziko ditut jarraian.

- Egilearen hizkuntza-jarrera aldakorra edo heterogeneoa izan daiteke: batzuetan, eremu horretan espero genitzakeen ezaugarriak ez dira ageri testuan, eta alderantziz, bertako hizkeraren aurka doazen ezaugarri batzuk egoten dira (Camino, 2009: 331). Datuak zuhurki aztertu behar izaten dira halakoetan egoki interpretatzeko.

Adibidez, Lasarteko 1716ko bertsoetan *berbea* (16. bertsoa) ageri da. Testu horretan Lasarteko orduko hizkera islatzen dela pentsatuz gero, mendebaleko $a + a > ea$ bilakabidearen adibide bat genuke Beterrin; orain arteko lehena eta bakarra litzateke eskualdean nahiz testuan bertan, zenbait kontra-adibideren aurka. Beste arazo bat legoke, ordea: *berba* hitzaren hedadura ez dator bat orain arte dakigunarekin; hori dela eta, Zuloagak (2022: 125) uste du “egilea ez zela Lasartekoa edo beste leku bateko hizkera-eredua baliatu zuela”. Hala ere, gainerako ezaugarri gehientsuenak espero genukeenarekin bat datoz, beraz, zaila da baieztapen edo ezeztapen ziur bat egitea. Egileari buruzko datu gehiago izateak lagunduko luke gaia argitzen. Alabaina, egilearen inguruan gehiago dakigunean ere zalantzak egon litezke: esate baterako, Donostiako Pepe eta Josefa maitaleen gutunei dagokienez, mutilaren gurasoak zarautzarrak zirela badakigu eta neskarenak, berriz, goizuetarrak (Satrustegi, 1983b: 23); horregatik, zaila da jakitea Donostiako euskara darabilten edo gurasoen partetik jasotako hizke(ra)ren eraginik ere isla daitekeen, nahiz eta bereziki harrigarri den ezaugarririk ez den ageri testuan. Halakoetan, testuko hizkera xehetasunez aztertu behar da. Leku horretako geroagoko euskaraz dakigunak ere lagun dezake zenbait kontu argitzen, betiere ordutik gaur egunera aldaketak gertatuko zirela ahaztu gabe.

Aurrekoari lotuta, testuan “espero ez genituen” ezaugarri horiek beti ez dira tokiko hizkerarekin erabat bateraezinak izaten; alabaina, ezaugarri bat behin bakarrik edo gutxitan bildu bada, edo agerraldi guztiak testu berekoak badira eta testu gehiagotan ageri ez bada, zalantza sortzen da benetan tokiko hizkeraren isla den edo bestelako arrazoiren bati zor dakioken: demagun, egilearen hautu linguistiko-estilistikoei edo testuan hizkera bat baino gehiago nahasteari. Esate baterako, Azkoitiko 1614ko *Sumario brevean dauenak* ‘duenak’ (15. agindua) ageri da behin, *-au-*rekin; Ordiziako Otxoa Arinenen 1713ko dotrinan ere *dabena* ‘duena’ (41. or.), *daben* ‘duen’ (168. or.) eta *dabeela* ‘dutela’ (16. or.) daude. Orain arte dakigunaren arabera, halako adizkiak mendebalerago bildu izan dira (vs Urolan eta Goierrin esperoko genituzkeen *deuanak*, *deban*, *deban* eta *debeala*). Ordiziako Otxoa Arinek, gainera, 1. pertsonako *dot* ‘dut’ ere badu, eta hau ere, ustez, mendebalerago erabili izan da (vs Goierrin esperoko genukeen *det*). Urolak eta Goierrin mendebalarekin lotura estua izan dute, beraz, baliteke bi leku horietan ere noizbait *dau-* eta *dot* erakoak erabiltzea, eta gero galtzea. Zalantza argitzen lagunduko luke garai eta leku bereko testu gehiagotan ere halako adizkiak aurkitzeak. Alde horretatik, idazkien arteko konparazioak emaitza baliagarriak eman ohi ditu, aukera dagoenean behintzat.

- Berrikuntzaren hedadura geografikoa eta honen ibilbidea argitzeko zailtasuna izatea: testuei esker berrikuntza bat gutxi gorabehera non erabili den jakin dezakegu, baina, batzuetan, irudikapen horretan etenak egoten dira datu faltagatik. Hori dela eta, beti ez da erraza izaten berrikuntzak egin duen bidea zehaztea eta leku horretara nondik iritsi den jakitea: mendebaletik edo ekialdetik, hegoaldeetik edo iparraldetik. Erdialdeko hizkerak,

⁹ Laugarren saileko beste ezaugarrien kasuan ez bezala, hauen adibiderik ez dut bildu Beterrin. Nolanahi ere, multzo honetan sartzea erabaki dut Gipuzkoa erdialde gehiena batzen eta alboetako eskualdeetatik bereizten duelako, eta balitekeelako noizbait Beterrin ere egon izana: gogoan izan behar da Gipuzkoa erdialde guztiko *edunen* 1. eta 2. pertsonako adizkiak (Arabako testu zaharretako) *-eu-*dun aldaeretatik etor daitezkeela: *deut* > *det*; *deugu* > *degu* (cf. *dau-* > *deu-* > *de-*; Urrestarazu, 2021: 72). Hala, baliteke 1., 2. eta 3. pertsonan *-eu-*duten aldaerak iker-eremu guztian egon izana noizbait.

gainera, eskualde/hizkera batez baino gehiagoz inguratuta daude, eta hortaz, azalpen bat baino gehiago egon daitezke. Alde horretatik, bazterreko hizkeretan errazagoa izan daiteke zehaztea, balizko aukerak gutxiago direlako.

Esate baterako, *nere* gisako izenordainak bide bat baino gehiagotatik irits zitezkeen, baldin eta bertan sortuak ez badira: Lapurdi → Bidasoaldea → Beterri; edo Nafarroa Garaia → Tolosaldea → Beterri/Goierri, etab. Olatu baten baino gehiagoren uhinen bidez hedatuak ere izan zitezkeen. Euren ibilbideaz ziurrago hitz egin ahal izateko, Gipuzkoan non eta noiztik egon diren argitu beharko litzateke, besteak beste. Zenbat eta kokagune jakineko testu (zahar) gehiago izan, orduan eta errazagoa izango da berrikuntza bat eskualde jakin batean gutxi gorabehera noiztik dagoen jakitea, eta hala, nonbaitetik iritsia den edo bertan sortua den argitzea. Eskura dauden datuekin ahalik eta hipotesirik finena osatzen saiatu behar du dialektologoak.

- Aztergai den eremuan ezaugarri batek duen antzinatasuna jakiteko zailtasuna izatea: berrikuntza bat gutxi gorabehera noizkoa den jakiteak ez du esan nahi aztergai den eremura ere garai berean heldu denik; berrikuntza ez zen eremu guztietara sortu eta berehala iritsiko, geroago baizik. Batzuetan behar baino datu gutxiago izaten ditugu halako gaiak argitu ahal izateko.

Adibidez, Beterri XVIII. mendea baino lehen (ia) ez dago indikatibotik kanpoko Nor-Nori-Nork adizkietako *egin* laguntzailearen adibiderik; Gipuzkoako beste eskualde batzuetan, aldiz, XVI. mendean jada badaude agerraldiak. Beterri (bereziki) dugun testu eskasiagatik ote da agerraldirik ez egotea? Edo pentsatu behar da mendebaleko berrikuntza hori, benetan, Gipuzkoako beste eskualdeetara baino geroago iritsi zela bertara? Berez, Erdi Aroaren azken bizpahiru mendeetan hedatutako berrikuntzat du Zuloagak (2022: 183) *eginen* gramatikalizazioa, baina Gipuzkoara geroago hel zitezkeen, eta, segur aski, Gipuzkoako eskualde guztietara ere ez zen garai berean iritsiko. Momentuz, testu gutxi(egi) ditugu xehetasunak jakiteko, baina, esan bezala, ditugun datuekin ahalik eta etekin gehiena ateratzen saiatu behar da.

4. Ondorioak

Gipuzkoako Urola, Goierri, Tolosaldea eta Beterri eskualdeetako testu batzuk hautatu eta erkatu ditut, eremu horretako iraganeko hizkuntza-dinamiken ikuspegi orokor bat izateko. Lehenasuna eman diet XVIII. mendearen lehen erdiko testu dialektalei; literatur gipuzkeraren joera eta ildoak hedatu baino lehenagokoak direnez, pentsa daiteke leku horietako hizkera islatzen dutela hein batean (§3.1). Hala, helburua izan da Gipuzkoa erdialdean iraganen egon ziren hizkuntza-ezaugarrien sailak ezagutzea, eta horietako bakoitza zein berrikuntzak osatzen duen eta nora hedatzen/mugatzen den ikusten hastea. Behin-behinean, lau sail bereizi ditut (§3.2); ondoko lanetan horietan sakontzea da asmoa.

Bestalde, dialektologia-lanetan hizkuntza-aldaketa eragiten duten alderdi “guztiak” aintzat hartzearen garrantzia gogoratu dut: hala nola, alderdi geografikoa, kronologikoa eta soziolinguistikoa. Testu zaharrak erabiltzerakoan sortzen diren zailtasun eta galdera batzuk ere adierazi ditut (§3.3). Aztergai diren idazle eta testu-generoen ezaugarrien inguruan zenbat eta ezagutza sakonagoa izan (egilearen jatorria, ikasketa-maila, helburua edo nahia, garaiko hizkuntza-joerak, etab.), orduan eta zalantza gutxiago izango ditugu, eta errazagoa izango da datuak egoki interpretatzea.

5. Etorkizunerako norabidea

Saio honetan eskainitako eskema tesirako erabiltzen ari naizen gainerako idazkietako datuekin osatu eta finduko dut, nire iker-eremuko nahiz ondoko eskualde/lurraldetako testuei begiratuta: ea sail horietan sar daitezkeen berrikuntza gehiago aurkitzen ditudan eta haien hedaduraz eta mugez zertxobait gehiago argitu dezakedan. Ardatz geografikoaren nahiz kronologikoaren arabera aldakortasuna duten hizkuntza-ezaugarriak atzeman eta, testuz testu, garai eta leku bakoitzean duten agerpenari xeheki erreperturatu diot, orain arteko ildoari jarraituz. Beharrezkoa izango da, bestalde, idazleei buruzko ezagutzan sakontzen jarraitzea, soziolinguistika (historikoa)ri lekua eginez.

6. Erreferentziak

- Ariztimuño, B. (2020): Gipuzkoako euskara zaharre(ta)tik erdialdeko euskarara, in I. Camino, X. Artiagoitia, I. Epelde & K. Ulibarri (arg.), *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena. Koldo Zuazori gorazarre*, UPV/EHU, Bilbo, 57-66.
- Bilbao, G. (2014): Elduaingo bertso iraingarriak, in R. Gómez, B. Ariztimuño, G. Bilbao, I. Camino, J. A. Lakarra, J. Manterola, C. Mounole, U. Reguero & E. Zuloaga (arg.), *Euskal testu zaharren bilduma berria* [eskuizkribu argitaragabea], UPV/EHU.
- Camino, I. (2000): Abiaburu bat Donostiako euskera aztertzeke, in K. Zuazo (arg.), *Dialektologia gaiak*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 51-81.
- _____. (2009): *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*, Elkar, Donostia.
- _____. (2016): *Amiküze eskualdeko ^heuskara*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- _____. (2019): An overview of Basque dialects, in L. Grenoble, P. Lane & U. Royneland (arg.), *Linguistic Minorities in Europe Online*, De Gruyter Mouton, Berlin (Boston). <https://doi.org/10.1515/lme.9497680>
- _____. (2022): *Aztergaiak Ipar Euskal Herriko euskararen berrikuntzez*, UPV/EHU, Bilbo.
- Lakarra, J. A. (2011/2014): Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz: Euskara Batu Zaharra berreraiki beharraz eta haren banaketaren ikerketaz, in I. Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina* (ASJUren gehigarriak 69), UPV/EHU, Bilbo, 155-241.
- Leturiaga, O. (2022): *Juan Irazusta. Pertsona, garaia eta idazlana*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- Madariaga, J., Azpiazu, J. A. & Elortza, J. (2009), XVIII. eta XIX. mendeetako Azpeitiko euskal testu batzuk, *FLV*, 110, 5-45.
- Mitxelena, K. (1981), Lengua común y dialectos vascos, *ASJU*, 15, 289-313.
- Nevalainen, T. (2018): Approaching change in 18th-century English, in T. Nevalainen, M. Palander-Collin & T. Säily (arg.), *Patterns of change in 18th-century English. A sociolinguistic approach*, John Benjamins, Amsterdam/Philadelphia, 3-12. <https://doi.org/10.1075/ahs.8.01nev>
- Ondarra, F. (1984), Zegamako *Doctrina Christiana* (1741), *ASJU*, 18(2), 3-62.
- Ondartza, I. (2022): *Araberaren aditz morfologian sakontzen* [Master Amaierako Lan argitaragabea], UPV/EHU.
- Otxoa Arin, J. (1713): *Doctrina Christianaren esplicacioa Villa Franca Guipuzcoaco onetan euscaraz ite eguiten dan moduan*, Pedro de Ugarte, Donostia.
- Reguero, U. (2019): *Filologiatik dialektologiara Nafarroako euskarazko testu zaharretan barrena (1416-1750)* (ASJUren gehigarriak 71), UPV/EHU, Bilbo.
- Sarasola, I. (1983), Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos, *ASJU*, 17, 69-212.
- Satrustegi, J. M. (1983a), Lasarteko bertso paper zahar bat (1716), *Iker*, 2, 571-581.
- Satrustegi, J. M. (1983b), Epistolario vasco del siglo XVIII, *ASJU*, 17, 3-24.
- Schneider, E. (2013): Investigating Historical Variation and Change in Written Documents, in J. K. Chambers & N. Schilling-Estes, *The Handbook of Language Variation and Change* (2. arg.), Blackwell, Oxford, 57-81. <https://doi.org/10.1002/9781118335598.ch3>
- Ulibarri, K. (2015): *Dotrinazko sermoitegia: galduriko hizkerak eta dialektologia historikoa* [dokto-re-tesia], UPV/EHU. <https://addi.ehu.es/handle/10810/15971>
- Urgell, B. (2020): Arabako euskara zer da? Gogoetak euskalkien mugez eta haien sailkapenez, in I. Camino, X. Artiagoitia, I. Epelde & K. Ulibarri (arg.), *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena. Koldo Zuazori gorazarre*, UPV/EHU, Bilbo, 701-735.
- Urkizu, P. (2009), Un texto olvidado del siglo XVII: *Sumario brevea...* (Azkoitia, 1614), *Revista de lenguas y literaturas catalana, gallega, y vasca*, 14, 207-217.
- Urrestarazu, I. (2021): *Gogoetak Euskara Batu Zaharraren hausturaz* [Master Amaierako Lan argitaragabea], UPV/EHU.
- Werner, V. (2021), Text-linguistic analysis of performed language: revisiting and re-modeling Koch and Oesterreicher, *Linguistics*, 59(3), 541-575. <https://doi.org/10.1515/ling-2021-0036>
- Zuazo, K. (2012): *Arabako euskara*, Elkar, Donostia.
- Zuloaga, E. (2022): *Mendebaleko Euskara Zaharra: ezaugarriak, kronologia eta geografia* (Iker 47), UPV/EHU & Euskaltzaindia, Bilbo.

7. Eskerrak eta oharrak

Saio honen lehen ondorioak *Euskal ikasketetako doktoregaien ikerketa-jardunaldia* (UPV/EHU & IKER)en aurkeztu nituen 2022ko ekainaren 8an, Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programaren barruan. Lan honek Eusko Jaurlaritzak emandako Doktoretza Aurreko Programako laguntza (2021-2022) izan du, eta *Monumenta Linguae Vasconum 6: Avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca* (PID2020-118445GB-I00) ikerketa-proiektuaren barnean egin da. Eskerrak eman nahi dizkiet Iñaki Camino eta Eneko Zuloagari, testuari egindako oharrengatik.